**DURANGOKO UDALA**

**IRAGARKIA**

Jendaurrean jartzea 2026ko ekitaldiko Ondasun higiezinen gaineko Zergaren errolda eta zerrenda kobratzailea, eta kobrantzaren iragarkia.

2026ko uztailaren 27an, 2026/2240 bigarren alkateorde ordezkariaren ebazpenaren bidez, 2026ko ekitaldiko Ondasun Higiezinen gaineko Zergaren hiri-izaerako higiezinen errolda eta zerrenda kobratzailea onartu ziren, 5.791.263,15 euroko zenbatekoarekin.

2026ko uztailaren 27an, 2026/2239 bigarren alkateorde ordezkariaren ebazpenaren bidez, 2026ko ekitaldiko Ondasun Higiezinen gaineko Zergaren landa-izaerako higiezinen errolda eta zerrenda kobratzailea onartu ziren, 2.013,87 euroko zenbatekoarekin.

Jendaurreko jartze honek, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arau Orokorraren 100.3 artikuluan aipatzen den jakinarazpen kolektiboaren izaera du, aldizka ordainagiri bidez kobratzen diren zergak direlako.

**Errekurtsoak:**

Errolda eta kobratze-zerrenda hori jendaurrean jarriko da, interesdun legitimoek azter dezaten, Durangoko Udalaren bulegoetan edo telematikoki eskatuta (Zergak Kudeatzeko Zerbitzua; Barrenkale kalea 17 – 48200 Durango), 2026ko uztailaren 30etik abuztuaren 31ra, Diru-bilketa Kudeatzeko eta Ikuskatzeko Zerga Ordenantzaren bigarren xedapen gehigarrian araututakoaren arabera.

**AYUNTAMIENTO DE DURANGO**

**ANUNCIO**

Exposición al público del padrón y lista cobratoria del Impuesto sobre Bienes Inmuebles del ejercicio 2026 y anuncio de cobranza.

Con fecha 27 de julio de 2026, por resolución de la Segunda Teniente de Alcalde Delegada 2026/2240, se aprueba el padrón y lista cobratoria del Impuesto sobre Bienes Inmuebles urbanos del ejercicio 2026, por un importe de 5.791.263,15 euros.

Con fecha 27 de julio de 2026, por resolución de la Segunda Teniente de Alcalde Delegada 2026/2239, se aprueba el padrón y lista cobratoria del Impuesto sobre Bienes Inmuebles rústicos del ejercicio 2026, por un importe de 2.013,87 euros.

Esta exposición, al tratarse de tributos de cobro periódico por recibo, tiene el carácter de notificación colectiva a que hace referencia el artículo 100.3 de la Norma Foral 2/2005, de 10 de marzo, General Tributaria del Territorio Histórico de Bizkaia.

**Recursos:**

El citado padrón y lista cobratoria se expondrá al público para su examen por los legítimamente interesados en las dependencias del Ayuntamiento de Durango (Servicio de Gestión Tributaria; C/ Barrenkale 17 – 48200 Durango) o solicitándolo de manera telemática, desde el 30 de julio al 31 de agosto de 2026, de acuerdo a lo regulado en la Disposición Adicional Segunda de la Ordenanza Fiscal de Gestión Recaudación e Inspección.

Asimismo, de conformidad con lo dispuesto

Era berean, Dirubilketa Kudeatzeko eta Ikuskatzeko Ordenantza Fiskalaren 38.10 artikuluan eta Toki Ogasunei buruzko abenduaren 16ko 9/2005 Foru Arauaren 13.2 artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, jendaurrean jarri ondoren, eta hilabeteko epean, erakusketa hori amaitu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, ebazpen honen aurka berraztertzeko errekurtsoa jarri ahal izango da, administrazio-bidea amaitzen duena.

en el artículo 38.10 de la Ordenanza Fiscal de Gestión Recaudación e Inspección y 13.2 de la Norma Foral 9/2005, de 16 de diciembre, de Haciendas Locales, una vez transcurrida la exposición pública y dentro del plazo de un mes, contado desde el día siguiente al de finalización de dicha exposición, podrá interponerse contra esta resolución recurso de reposición que agota la vía administrativa.

**Ordaintzeko borondatezko epea: 2026ko irailaren 1etik urriaren 31ra.**

Diru-bilketa kudeatzeko eta ikuskatzeko zerga-ordenantzaren bigarren xedapen gehigarrian aurreikusitakoa betez, zergadunei eta gainerako interesdunei jakinarazten zaie 2026ko ekitaldiko ordainagirietarako borondatezko kobrantza-epea, 2026ko ekitaldiko Ondasun Higiezinen gaineko Zergari dagokiena, aurtengo irailaren 1etik urriaren 31ra bitartekoa izango dela, biak barne.

**Periodo voluntario de pago: del 1 de septiembre al 31de octubre de 2026.**

En cumplimiento de lo previsto en la Disposición Adicional Segunda de la Ordenanza Fiscal de Gestión Recaudación e Inspección, se pone en conocimiento de los contribuyentes y demás interesados que el periodo voluntario de cobro para los recibos del ejercicio 2026 correspondiente al Impuesto sobre Bienes Inmuebles del ejercicio 2026, será el comprendido entre los días 1 de septiembre al 31de octubre, ambos inclusive, del presente año.

**HELBIDERATZERIK GABEKO ordainagiriak:**

Borondatezko aldian, zergak helbideratuta ez dituzten zergadunek aukera hauen bidez ordain ditzakete zergak:

1. Herritarren Kutxazainaren bidezko ordainketa:

Ordainketa egin daiteke, Herritarrentzako Arreta Zerbitzuaren ondoan dagoen Herritarren Kutxazainaren bitartez.

2. Ordainketa kreditu-erakunde baimenduetan:

Diru-bilketan laguntzen duten erakundeen bidez, edo baimendutako beste pertsona edo erakunde batzuen bidez Dirubilketa Kudeatzeko eta Ikuskatzeko Ordenantza

**Recibos NO DOMICILIADOS domiciliación:**

Durante el periodo voluntario, los contribuyentes que no tengan sus impuestos domiciliados, pueden pagarlos mediante las siguientes opciones:

1. Pago mediante cajero ciudadano:

El pago puede realizarse a través del Cajero Ciudadano sito en las dependencias Municipales junto al Servicio de Atención Ciudadana.

2. Pago en entidades de crédito autorizadas:

A través de entidades colaboradoras en la recaudación o de otras personas o entidades autorizadas de acuerdo al artículo 47.3 de la Ordenanza Fiscal de Gestión, Recaudación e

Fiskalaren 47.3 artikuluari so eginez. Durangoko Udaleko diru-bilketan honako erakunde hauek dira baimenduak: Kutxabank, Caixabank, Laboral Kutxa, Banco Santander Central Hispano, Caja Rural Vasca, BBVA eta Banco de Sabadell.

3. Online:

Durangoko Udalaren egoitza elektronikoan. https://egoitzasede.durango.eus helbidean sartuta eta, «Zergak eta ordainketak» atalean, «Nire ordainketa» hautatuz.

Euskal Administrazioaren ordainketa-pasabidea erabiliz. https://www.euskadi.eus helbidean sartuta eta «Nire ordainketa online» hautatuz.

Kopia bat eskatu ahal izango da HAZen (Herritarrentzako Arreta Zerbitzuaren Bulegoa), edo haren edukia eskuratu ahal izango da elektronikoki, eskuragarri baitago https://egoitzasede. durango.eus helbidean eta «Ordainagiriak» atalean.

HELBIDERATUTAKO ordainagiriak:

Ordainagirien helbideratze iraunkorra dutenen kasuan, kontuan zorduntzeko data 2026ko urriaren 8a izango da.

**Oharra:**

Kobratzeko borondatezko epea igarotakoan, ordaindu gabeko zorrak premiamendu-prozeduraren bidez galdatuko dira, eta betearazpen-aldiko errekarguak, berandutze-interesak eta, hala badagokio, sortzen diren kostuak sortuko dira Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arau Orokorrean era Dirubilketa Kudeatzeko eta Ikuskatzeko Ordenantza Fiskalean xedatutakoaren arabera.

Inspección. Las entidades colaboradoras en la Recaudación en el Ayuntamiento de Durango son: Kutxabank, Caixabank, Laboral Kutxa, Banco Santander Central Hispano, Caja Rural Vasca, BBVA y Banco de Sabadell.

3. On-line:

En la Sede electrónica del Ayuntamiento de Durango. Accediendo a la dirección https://egoitzasede.durango.eus y en el apartado «Tributos y pagos» seleccionando «Mi pago».

Mediante la pasarela de pagos de la Administración Vasca. Accediendo a la dirección https://www.euskadi.eus/ y seleccionando «Mi pago online».

Se podrá solicitar un duplicado en el SAC (Oficina del Servicio de Atención Ciudadana) o acceder al contenido del mismo, que está a su disposición en la dirección https://egoitzasede. durango.eus y en el apartado «Recibos».

Recibos DOMICILIADOS:

Para quienes tengan domiciliación permanente de sus recibos, la fecha de adeudo en cuenta será el 8 de octubre de 2026.

**Advertencia:**

Transcurrido el periodo voluntario de cobranza las deudas no satisfechas serán exigidas por el procedimiento de apremio y se devengarán los correspondientes recargos de periodo ejecutivo, los intereses de demora y, en su caso, las costas que se produzcan, de conformidad a lo establecido en la Norma Foral 2/2005, de 10 de marzo, General Tributaria del Territorio Histórico de Bizkaia y la Ordenanza Fiscal de Gestión Recaudación e Inspección.

Durango, 2026ko uztailaren 28a.

Josune Escota Bisbal bigarren alkateorde delegatua.

En Durango, a 28 de julio de 2026.

La Segunda teniente de Alcalde Deleagda, Josune Escota Bisbal.

Durango, 28 de julio de 2026

Josune Escota Bisbal
2. alkateordea - 2.ª Teniente Alcalde

Elektronikoki izenpeturiko agiria
Documento firmado electrónicamente